

**Hauteskunde-kontabilitateei buruzko
Irizpena
(Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak,
2020ko uztailaren 12a)**

**Dictamen sobre Contabilidades Electorales
(Elecciones al Parlamento Vasco 12 de julio
de 2020)**



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK.....	5
SARRERA.....	7
I. ONDORIOAK.....	10
I.1 Lanaren zabalari mugak.....	10
I.2 Legeria betetzea	10
I.3 Dirulaguntza proposamena.....	10
II. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA.....	12
II.1 Hauteskundeetako emaitzak.....	12
II.2 Dirulaguntzen aurrerakinak.....	12
II.3 Hautesleei zuzenean eta pertsonalki bidaltzeagatiko dirulaguntza	13
II.4 Hauteskunde-gastuetarako dirulaguntza.....	14
II.5 Gastuen gehienezko muga	15
III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK.....	17
IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK.....	19
IV.1 Euzko Alderdi Jeltzalea	20
IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU.....	20
IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	21
IV.4 ELKARREKIN PODEMOS	22
IV.5 Alderdi Popularra+Ciudadanos	22
IV.6 VOX.....	23



ABREVIATURAS	25
INTRODUCCIÓN.....	27
I. CONCLUSIONES	30
I.1 Limitaciones al alcance del trabajo	30
I.2 Cumplimiento de la legislación	30
I.3 Propuesta de subvención	30
II. SUBVENCIONES Y LÍMITE DE GASTOS.....	32
II.1 Resultados electorales.....	32
II.2 Adelantos de subvenciones.....	32
II.3 Subvención por envío directo y personal a los electores	33
II.4 Subvención gastos electorales.....	34
II.5 Límite máximo de gastos	35
III. DEFICIENCIAS Y RECOMENDACIONES	37
IV. CUENTAS ELECTORALES	39
IV.1 Euzko Alderdi Jeltzalea-Partido Nacionalista Vasco.....	40
IV.2 Euskal Herria Bildu	40
IV.3 Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra (PSOE).....	41
IV.4 Elkarrekin Podemos-IU	42
IV.5 Partido Popular+Ciudadanos.....	42
IV.6 VOX.....	43

Vitoria-Gasteiz, 2020ko abenduaren 16a
Vitoria-Gasteiz, a 16 de diciembre de 2020



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

- EAE Euskal Autonomia Erkidegoa.
- PFEZ Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga.
- EAEHB Euskal Autonomia Erkidegoko Hauteskunde Batzordea.
- ELHL 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeei buruzkoa.
- APEKP Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Plana eta martxoaren 30eko 3/2015 Lege Organikoari, Kontuen Epaitegiaren Osoko Bilkurak 2018ko abenduaren 20an onartutakoa.
- HKEE Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.



SARRERA

Ekainaren 15eko 5/1990 Legearen 149.3 artikulua araberako, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunderi buruzkoa, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak hauteskunderen kontabilitateari eta horietan jasotako sarrera eta gastuen justifikazioari buruzko irizpen arrazoitua eman behar du.

Lehendakariaren otsailaren 10eko 2/2020 Dekretuak Eusko Legebiltzarra desegin eta hauteskundeak deitu zituen 2020ko apirilaren 5erako. COVID-19tik eratorritako osasun-krisiaren ondorioz, Lehendakariaren martxoaren 17ko 7/2020 Dekretuak indarrrik gabe utzi zuen hauteskundeak apirilaren 5ean egiteko erabakia, eta beste deialdi bat egitea ebatzi zuen, osasun-larrialdiko egoera amaitu ondoren.

Honela, bada, martxoan osasun publikoko larrialdi-egoerari erantzuteko ezohiko eta premiazko neurriak hartzea gomendatzen zuen egoera epidemiologikoa gainditu ondoren, Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretuak Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitu zituen 2020ko uztailaren 12rako.

Indarrean dagoen araudiaren arabera, lanaren mamia izan da Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretu bidez abiarazitako hauteskunde-prozesuko hauteskunde-kontuak egiaztatzea, joan den 2020ko uztailaren 12an egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu zuten edota hauteskundeetako dirulaguntzaren aurrerakina eskatu zuten alderdi politikoena, honako alderdi hauei dagokienez:

1. ELHLren 140. artikulua hauteskundeetako sarrera eta gastuen kontabilitatea aurkezteko moduz zehazten dituen baldintzak bete izatea.
2. Irekitako edo gaitutako banku kontuak, Autonomia Erkidegoaren Hauteskunde Batzordeari jakinarazitakoak (aurrerantzean AEHB), hautagaitzek diru-funtsak biltzeko eta hauteskunde-gastuak ordaintzeko erabili dituztela egiaztatzea, ELHLren 141 eta 142.1 eta 2 artikuluek ezartzen dituzten berezitasunekin.
3. Aurrez egindako hauteskunde-gastuak ordaintzeko irekitako kontuen saldoen erabilera, bozketa ostean 90 eguneko epean (ELHLren 142.3 artikulua).
4. Norbanakoek egiten dituzten ekarpenetan izena, helbidea eta nortasun agiri nazionalaren edo pasaportearen zenbakiaren ebidentzia dirua ezartzeko egintzan (ELHLren 143.1 artikulua) eta 145.4 artikulua adierazten duen ekarpen horien banakako muga gehiengoa errespetatu dela egiaztatzea, 10.000 euroan ezarri dena.
5. Alderdiek hauteskunde-prozesua ordaintzeko emandako diru-baliabideen jatorria (ELHLren 143.3 artikulua).
6. Hauteskundeetako kontuetara honako erakunde hauetatik funtsak ekartzeko debekua betetzea: zeinahi administrazio edo erakunde publikotatik; erakunde autonomo edo estatuaz besteko entitateetatik; jabetza Estatuak, autonomia erkidegoek, probintziek edo udalek duten sektore publikoko enpresetatik; ekonomia mistoa duten enpresetatik; baita, indarreko kontratu bitartez, administrazio publikoren batentzat zerbitzu eman edo hornidura edo lanak egiten dituzten enpresetatik (ELHLren 145.1. artikulua).



7. Atzerriko erakunde zein pertsonengandik edo Autonomia Erkidegoz kanpoko helbidea dutenengandik edo legezko ez diren jardueretatik funtsak ekartzeko debekua errespetatzea (ELHLren 145.2 eta 3 artikulua).
8. Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariek eskuratu zituzten hautagaitzei Eusko Jaurlaritzak emandako hauteskundeetako dirulaguntzen aurreraketan gehiengo muga gordetzea. Aurreratutako kopurua ezingo da izan hautagaitza horrek berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan eskuratutako dirulaguntzaren % 30 baino handiagoa (ELHLren 144.2 artikulua).

Bigarren aurrerakinaren zenbatekoa hautagaitzek eskuratutako hauteskunde-emaizen arabera dagozkien dirulaguntzen zenbatekoaren % 90en pareko izango da, hala dagokionean, aurreko ataleko aurrerakina murriztuta (ELHLren 144.7 artikulua); kopuru hori ez da aurkeztutako hauteskundearen kontabilitateetan jaso, eman gabe baitzegoen kontuak aurkezteko epea amaitutakoan.
9. Hauteskunde-gastuak egiaz kontratatu direla horretarako gaitutako aldian, hau da, hauteskundeak deitzen diren datatik hautagaiak izendatu arteko datara arte, ELHLren 146 artikuluan erabakitakoaren arabera.
10. ELHLren 147 artikuluari jarraikiz, legez finkatutako gastuetarako mugak betetzea, zeinak agintzen baitu inongo alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-taldek ezingo duela ezarritako mugak gaindituko dituzten hauteskunde-gastuak egin. Segurtasuneko Sailburuaren 2020ko maiatzaren 27ko Aginduak kopuru hori 1.601.982,42 euroan finkatzen du, EAeko hiru hauteskunde-barrutien multzoan aurkezten diren haietzako.

Gainera, ELHLren 151.2 artikulua eta Ekonomia eta Ogasun Sailburuaren 2020ko maiatzaren 20ko Aginduaren arabera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta hauteskunde-txartelak edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu modu zuzenean eta pertsonalean igortzeak eragindako hauteskunde-gastuak hautesle bakoitzeko 0,24 euroekin lagunduko dira diruz, dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulki bat eskuratu duen barruti bakoitzean. Diruz lagundutako kopurua ez da ELHLren 147. artikulua aurreikusten duen mugaren baitan barne hartua egongo, betiere, atal honek aipagai duen jarduera egiaz gauzatu dela justifikatzen bada.
11. Baimendutako merkataritza-guneetan eta prentsan eta irratian egindako publizitate-gastuen mugak betetzea, hurrenez hurren ELHLren 75. eta 81. artikuluetan adierazitakoak.
12. Egindako gastuak justifikatzea, kontularitza, merkataritza eta zerga printzipio eta arauak agindutako gutxieneko baldintzak betetzen dituzten agirien bitartez.



Hauteskunde-prozesu honi ezargarria zaion legedia honako hau da:

- 5/1985 Lege Organikoa, ekainaren 19koa, Hauteskunderen Araubide Orokorrari buruzkoa
- 5/1990 Legea, ekainaren 15ekoa, Eusko Legebiltzarrerako Hauteskunderi buruzkoa.
- 6/2010 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzkoa.
- Lehendakariaren maiatzaren 18ko 11/2020 Dekretua, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak deitzen dituenak.
- 2020ko maiatzaren 20ko Agindua, Ekonomia eta Ogasun Sailburuarena, ELHLn jasotako kopuruak gaurkotzen dituenak.
- Segurtasuneko sailburuaren 2020ko maiatzaren 27ko Agindua, 2020ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan hauteskunde-gastuak mugatzeko ezarritako kopuruak zehazteari buruzkoa.

Hona hemen 2020ko uztailaren 12an egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan aulkia eskuratu duten alderdi politikoak:

ALDERDI POLITIKOA / HAUTESKUNDE-KOALIZIOA	SIGLAK
Euzko Alderdi Jeltzalea	EAJ-PNV
Euskal Herria Bildu	EH Bildu
EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)	PSE-EE (PSOE)
Elkarrekin Podemos-IU	Podemos-Ahal dugu/Ezker Anitza-IU
Alderdi Popularra+Ciudadanos	PP+Cs
VOX	VOX

Ez da hautagaitzarik izan ordezkaritzarik eskuratu gabe hauteskundeetako dirulaguntzaren aurrerakinik eskatu duenik.

I. ONDORIOAK

I.1 LANAREN ZABALARI MUGAK

Alderdi politikoen kontabilitatearen fiskalizazioa egitea ez dagokio Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari, Kontuen Epaitegiari baizik (Estatukoari). Honenbestez, HKEEK ez du aurkeztutako kontabilitatean erregistratu gabeko hauteskunde-gasturik ba ote den egiaztatu, ez eta alderdi politikoen kontabilitatearen bitartez legezko debeku edo mugaketak betetzen ez dituzten diru-sarrerak bideratu ote diren ere.

I.2 LEGERIA BETETZEA

2020ko uztailaren 12ko Batzar Nagusietako hauteskundeetara aurkeztutako alderdi politikoei eta koalizioei zuzentasunez bete dute indarreko legeria hauteskunde-gastu eta finantzaketa gaietan; halaber, ez dituzte gastuetarako finkatutako mugak gainditu eta HKEEK fiskalizatzeko hauteskunde-kontabilitatea Legeak agindutako epearen barruan aurkeztu dute.

I.3 DIRULAGUNTZA PROPOSAMENA

Hauteskundeetako gastuen dirulaguntza Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren aurrekontuen kargura ordaintzen da, ELHLren 151.1 artikuluari jarraikiz; kopuruak 2020ko uztailaren 12ko Agindu bitartez gaurkotu dira. Dirulaguntza ez da inola ere justifikatutako gastuak baino handiagoa izango, eta hauek ere ezingo dute 2020ko maiatzaren 27ko Aginduak finkatutako gastuen gehieneko muga gainditu.

Horren arabera, hauteskunde-kontabilitatea aurkeztu den datan dirulaguntzen hauteskunde aurreko aurrerakina soilik jaso dela aintzat hartuta (lehenengo aurrerakina), alderdi politiko bakoitzak jasotzeko duen dirulaguntza honako hau da:

HAUTESKUNDE-GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	GASTU JUSTIFIKATUAK	DIRULAGUNTZA UKATUA	AURRERAKIN ORDAINDUA	KOBRATZEKO DIRULAGUNTZA
EAJ-PNV	1.452.932,11	1.452.932,11	472.914,51	980.017,60
EH Bildu	1.032.675,86	1.032.675,86	363.037,68	669.638,18
PSE-EE (PSOE)	1.108.919,07	924.700,20	264.815,19	659.885,01
Elkarrekin Podemos-IU	464.879,16	464.879,16	-	464.879,16
PP+Cs	978.420,24	695.857,44	-	695.857,44
VOX	304.451,83	136.333,04	-	136.333,04
GUZTIRA	5.342.278,27	4.707.377,81	1.100.767,38	3.606.610,43

Sortutako dirulaguntzak barne hartzen du bai hautesleei modu zuzenean eta pertsonalean egindako bidalketari dagokiona, bai gainerako hauteskunde-gastuei dagokiena ere, hurrenez hurren, II.3 eta II.4 ataletan zehaztu direnak. Jasotako aurrerakinen xehapena II.2 atalean barne hartu da.



IV. atalean hauteskondeetako kontabilitateen xehapena barne hartu da eta aurkeztutako kontabilitateei egindako doiketak eta birsailkatzeak zehazten dira.



II. DIRULAGUNTZAK ETA GASTUEN MUGAKETA

II.1 HAUTESKUNDEETAKO EMAITZAK

Lurralde Historiko bakoitzeko Hauteskunde Batzordeek hautetsiak izendatzeko egindako akten arabera, EAEHBk baitetsitakoa, formazio bakoitzari dagozkion dirulaguntza publikoak zehazteko zenbagarri diren boto eta aulkien kopurua honako hau da:

HAUTAGAITZA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		EAE	
	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak	Botoak	Aulkiak
EAJ-PNV.....	40.067	9	200.339	12	109.554	10	349.960	31
EH Bildu.....	30.934	6	112.619	6	106.027	9	249.580	21
PSE-EE (PSOE)	19.452	4	64.001	3	38.795	3	122.248	10
Elkarrekin Podemos-IU	10.092	2	40.453	2	21.568	2	72.113	6
PP+Cs	14.316	3	32.248	2	14.086	1	60.650	6
VOX.....	4.734	1	8.815	-	4.020	-	17.569	1
Gainerako hautagaitzak.....	4.794	-	12.143	-	6.745	-	23.682	-
GUZTIRA	124.389	25	470.618	25	300.795	25	895.802	75

Hautesle-errola, hautetsiak izendatzeko aipatutako akten arabera, honako hau izan da:

LURRALDE	ERROLDA
HISTORIKOA	GUZTIRA
ARABA.....	258.846
BIZKAIA	950.564
GIPUZKOA	584.906
GUZTIRA	1.794.316

II.2 DIRULAGUNTZEN AURRERAKINAK

ELHLren 144 artikulua 2. atalak agintzen du "Eusko Jaurlaritzak hauteskundeetako dirulaguntzen aurrerakinak emango dizkiela Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan ordezkariek eskuratu dituzten alderdi politiko, federazio, koalizio edo hauteskunde-taldeei. Aurreratutako diru kopuruak ezin gaitzeko du alderdi, federazio, koalizio edo hautesle-talde berak Eusko Legebiltzarrerako azken hauteskundeetan jasotako dirulaguntzaren % 30a.

Aipatutako artikulua 7. atalak agintzen du behin hauteskundeak egin eta EAEHBren aurrean hauteskunde-kontabilitatea aurkezteko epea amaitu ondorengo 15 egunetan, Ogasuneko Sail arduradunak administratzaile orokorrei eta bigarren aurrerakin kontzeptuan, hautagaitzek eskuratutako hauteskunde-emaizen arabera dagozkien dirulaguntzen zenbatekoaren % 90i dagokion kopurua ordainduko diela, kasua balitz, aurreko atalean aipatutako aurrerakina murriztuz. Aurrerakin hau jasotzeko alderdi politikoek jasotako aurrerakin guztien % 10 egiten duen banku abala aurkeztu behar dute.

Kontuak aurkeztu diren datan Eusko Jaurlaritzak lehenengo aurrerakina soilik eman du. Hona hemen alderdi politiko bakoitzak jasotako aurrerakina:

DIRULAGUNTZAREN AURRERAKINA		Euroak
HAUTAGAITZA		ZENBAT.
EAJ-PNV.....		472.914,51
EH Bildu.....		363.037,68
PSE-EE (PSOE).....		264.815,19
Elkarrekin Podemos-IU.....		-
PP+Cs.....		-
VOX.....		-
GUZTIRA		1.100.767,38

Elkarrekin Podemos-IU eta Alderdi Popularra+Ciudadanos alderdiek ez dute lehenengo aurrerakin hau eskatu ELHLren 144.3 artikulua zehaztutako datetan (ekainaren 9 eta 11 bitartean). Bestalde, VOXek ezin du aurrerakin hau eskatu, ez baitzuen ordezkartzarik lortu 2016ko irailaren 25ean egindako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan.

II.3 HAUTESLEEI ZUZENEAN ETA PERTSONALKI BIDALTZEAGATIKO DIRULAGUNTZA

Alderdi politikoek dirulaguntza jasoko dute hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paper edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde-gastuengatik (posta bidezko bidalketa). Dirulaguntza hautesle bakoitzeko 0,24 eurorena izango da dena delako hautagaitzak aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean, betiere jarduera egiaz gauzatu dela eta ezarritako gastu muga gorde dela justifikatzen bada.

Honi dagokionez, EAEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bileran adierazi zuen hautesletzat hartuko dela hauteskunde-propagandaren igorpena egin zaion oro.

Hona hemen hautagaitza bakoitzak gutxienez aulki bat eskuratu duen barrutietan egindako bidalketa zuzenen kopurua eta ezargarria zaien gehiengo dirulaguntza:

ZUZENEKO IGORPENARI DIRULAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	IGORPEN DIRUZ LAGUNGARRIAK	GEHIENEO DIRULAG.	GASTU JUSTIFIKATUAK	DIRULAGUNTZA APLIKAGARRIA
EAJ-PNV.....	1.675.975	402.234,00	225.395,10	225.395,10
EH Bildu.....	1.675.943	402.226,32	217.858,44	217.858,44
PSE-EE (PSOE).....	1.672.354	401.364,96	390.695,97	390.695,97
Elkarrekin Podemos-IU.....	1.675.978	402.234,72	156.316,72	156.316,72
PP+Cs.....	1.672.352	401.364,48	331.512,97	331.512,97
VOX.....	239.075	57.378,00	158.554,19	57.378,00
GUZTIRA		2.066.802,48	1.480.333,39	1.379.157,20



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Diruz lagungarri diren bidalketa modura barne hartu dira alderdi politikoek egiaz justifikatu dituzten haiek, EAEHBren 1998ko irailaren 11ko interpretazioaren arabera.

II.4 HAUTESKUNDE-GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA

Hauteskunde-propaganda bidaltzeagatiko dirulaguntzaz gain, gainerako gastuak ere eskuratutako boto eta ordezkari kopuruaren arabera lagunduko dira, ELHLren 151. artikuluari jarraikiz. Era honetan, ELHLren xedapen gehigarri laugarrenaren arabera, 151. artikuluan aurreikusitako kopuruak Ogasun eta Ekonomia Sailburuaren 2020ko maiatzaren 20ko Agindu bidez gaurkotzen dira:

- Hogeita zazpi bederatziehun eta hogeita hemeretzi koma berrogeita bat euro (27.939,41 euro), Eusko Legebiltzarrean eskuratutako aulki bakoitzeko.
- Hautagaitza bakoitzak eskuratutako boto bakoitzagatik zero koma laurogeita hamalau euro (0,94 euro), betiere gutxienez kideetako batek dagokion hauteskunde-barrutian aulkia eskuratu badu.
- Berrogeita sei mila bostehun eta hirurogeita bost koma hirurogeita zazpi euro (46.565,67 euro) hauteskunde-barruti bakoitzeko, hauteskunde-barrutian gutxienez aulki bat eskuratzen dutenei.

Esandakoari jarraikiz, hona hemen alderdi politiko bakoitzak eskura ditzakeen hauteskunde-prozesu bakoitzeko gehieneko dirulaguntzak:

HAUTESKUNDE-GASTUETARAKO GEHIENEO DIRULAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	AULKIAK	BOTOAK	BARRUTIA	GUZTIRA
EAJ-PNV	866.121,71	328.962,40	139.697,01	1.334.781,12
EH Bildu.....	586.727,61	234.605,20	139.697,01	961.029,82
PSE-EE (PSOE)	279.394,10	114.913,12	139.697,01	534.004,23
Elkarrekin Podemos-IU.....	167.636,46	67.786,22	139.697,01	375.119,69
PP+Cs.....	167.636,46	57.011,00	139.697,01	364.344,47
VOX	27.939,41	4.449,96	46.565,67	78.955,04
GUZTIRA	2.095.455,75	807.727,90	745.050,72	3.648.234,37

Dirulaguntza hauek hautagaitza bakoitzak egiaz justifikatutako gastuek mugatzen dituzte eta honenbestez, kobratu beharreko dirulaguntza bi kopuruetan txikiena da, justifikatutako dirulaguntza edo gastua, alegia.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

HAUTESKUNDE-GASTUETARAKO DIRULAGUNTZA				Euroak
HAUTAGAITZA	GASTUAK GUZTIRA	POSTA IGORK. DIRULAG.	HAUTESKUNDE GASTUAK	DIRULAG. EZARGARRIA
EAJ-PNV	1.452.932,11	225.395,10	1.227.537,01	1.227.537,01
EH Bildu	1.032.675,86	217.858,44	814.817,42	814.817,42
PSE-EE (PSOE).....	1.108.919,07	390.695,97	718.223,10	534.004,23
Elkarrekin Podemos-IU	464.879,16	156.316,72	308.562,44	308.562,44
PP+Cs	978.420,24	331.512,97	646.907,27	364.344,47
VOX.....	304.451,83	57.378,00	247.073,83	78.955,04
GUZTIRA	5.342.278,27	1.379.157,20	3.963.121,07	3.328.220,61

Aurreko taulan jasotako guztizko gastuak bat datoz alderdiek aurkeztutakoekin eta horiei IV. atalean adierazitako doiketak ezarri zaizkie.

Zuzen justifikatutako gastu guztietatik propagandaren igorketa zuzen eta pertsonalagatik jada diruz lagundutako gastuak murriztu dira. Modu honetara, gainerako gastuak aurreko GASTUEN GEHIENENKO DIRULAGUNTZA taulan zehaztutako jasotzeko kopuru gehienekoarekin alderatzen dira eta kopuruetan txikien den hura laguntzen da diruz.

II.5 GASTUEN GEHIENENKO MUGA

Hautagaitza EAEn diren hiru hauteskunde-barrutietatik bakar batean aurkeztu duten alderdi politikoentzako barrutien arabera hauteskunde-gastuek ezingo dituzte ondoko taulan zehaztutako kopuruak gainditu:

	Euroak
ARABA	356.683,21
BIZKAIA	716.720,01
GIPUZKOA	528.579,20

Aulkiren bat eskuratu duten alderdi guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko hiru hauteskunde-barrutietan aurkeztu dira eta honenbestez, hauteskunde-gastuen muga, posta bidezko bidalketa kontzeptuan diruz lagundutako gastuak murriztu ondoren, 1.601.982,42 eurorena izango da.

Alderdi politikoetatik batek ere ez du muga hau gainditu.

Gainera, ELHLren 75 eta 81 artikuluek mugak ezartzen dituzte baimendutako merkataritza eremuetan eta prentsan eta irratan publizitate gastuetarako. Biek ere, aurrez adierazitako kopuruaren gainean % 20ko muga ezartzen dute.

Ondoko taulak alderdi politiko bakoitzak gastu kontzeptu hauetan egindako gastuak eta aurkeztu diren barrutiei ezargarri zaizkien mugak erakusten ditu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak

HAUTAGAITZA	KANPOKO PUBLIZATEA		PUBLIZATEA PRENTSAN ETA IRRATIAN	
	Muga	Gastuak	Muga	Gastuak
EAJ-PNV	320.396,48	234.696,45	320.396,48	236.692,98
EH Bildu.....	320.396,48	47.991,05	320.396,48	100.955,30
PSE-EE (PSOE)	320.396,48	155.979,57	320.396,48	177.779,11
Elkarrekin Podemos-IU	320.396,48	7.151,96	320.396,48	72.015,15
PP+Cs.....	320.396,48	58.516,94	320.396,48	201.154,73
VOX	320.396,48	725,40	320.396,48	-
GUZTIRA		505.061,37		788.597,27



III. HUTSAK ETA GOMENDIOAK

1. ELHLren 151.2 artikulua dio: "... gainera, hautesleei propaganda, gutun-azal eta esku-paperak edo hauteskunde-publizitateko bestelako zeinahi elementu zuzenean eta pertsonalki igortzeak eragindako hauteskunde-gastuak hautesle bakoitzeko 0,24 euroekin laguntzen dira diruz, dena delako hautagaitzak zerrenda aurkeztu eta aulkia eskuratu duen barruti bakoitzean".

Nolanahi dela ere, ELHLren inongo artikulutan ez dira kontzeptu honen izenean egotzi behar diren gastuak zehaztu.

Artikulu honen interpretazioa AEHBk 1998ko irailaren 11n egindako bilkuran aztertu zuen eta hautesle bakoitzeko dirulaguntza zer den eta gastu horiek nola justifikatu behar diren deskribatu zuen; ordea, ez zuen zein gastu barne har daitezkeen finkatu.

Komenigarria litzateke, berebat, ELHLk bereizten dituen kontzeptuetan aintzat hartu beharreko gainerako hauteskunde-gastuen izaera garatu eta zehaztea, eta bereziki, mugatutako gastuei aipamen egiten dien haiek: kanpoko publizitatea eta prentsakoa eta irratikoa; arautze horretan jasoko da, gainera, informazioaren teknologia berrien erabilerari eman behar zaion tratamendua (web orriak, aldizkari digitalak...).

Dirulaguntza bati lotuak dauden gastuak zorrotzago arautu behar dira, egungo ziurgabetasuna saihestu eta finkatutako legezko mugaketa egiaztatzeko horien izaeraren gaineko zalantza oro baztertu ahal izateko.

2. Alderdi politikoek hornitzaile bakar batekin kontratatutako gastuen bolumen izugarria dute. Gastuen, eta honenbestez, jasotako dirulaguntzen zenbatekoa aintzat hartuta, komenigarria litzateke alderdi politikoek ekonomikoki abantailatsuen den eskaintza hautatzea bermatuko duten moldeak finkatzea aitortutako gastuen bolumenaren gainean garrantzia duten eragiketetik, dela banakako zenbatekoagatik dela hornitzaile bakar batean metatzeagatik. Prozedura horrek agiri bidez modu egokian egiaztatzea bideratuko duten beharrezko neurriak besarkatu beharko lituzke.

3. VOXek 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetarako 2020ko apirilaren 5eko hauteskunde-prozesurako irekitako banku-kontu berbera baliatu du; ordea, EAEHBk 2020ko maiatzaren 13an erabaki zuen apirilaren 5eko prozesuko kontuak soilik baliatu ahal izango zirela otsailaren 11 eta martxoaren 18 bitartean egindako gastuak martxoaren 18az osteko 90 egunetan ordaintzeko eta hauteskunde-deialdi berriak hauteskunde-kontu berriak irekitzea ekarriko zuela (ELHLren 140 eta ondoko artikulua).

4. Alderdi politikoek hauteskunde-kontabilitateak aurkeztean eta euskarri modura azaltzen dituzten ziurtagirietan, hurrengo deialdietan zuzendu beharreko hainbat akats ikusi ditugu:



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Aurkeztutako ordainagirik garbi jaso behar dute gastua zein datatan eta zein kontzepturekin egin den. Zerbitzuaren edo materialen horniduraren emakida-data fakturaz bestelakoa baldin bada, data adierazi behar da.
- Hauteskunde-gastuen kontabilitateak eragiketa bakoitzaren kontzeptuen deskribapen zehatza jaso behar du, ELHLren 140. artikulua agintzen duen moduan.



IV. HAUTESKUNDE-KONTUAK

Ondotik, Epaitegi honek aztertu dituen alderdi, federazio eta koalizio bakoitzari dagozkion kontuak aurkeztuko ditugu. Hauteskunde-kontabilitatea 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera formulatu behar da Alderdi Politikoei Egokitutako Kontabilitate Planaren arabera (APEKP).

Txosten honetako tauletan baliabide modura barne hartu dira alderdi politikoetatik jasotako ekarpenak, APEKPren arabera hartzekodunetan erregistratu behar direnak; dirulaguntzek eragindako sarrerak, berriz, APEKPren arabera emaitzen kontuan kontabilizatu behar dira emandako zenbatekoarekin, kasu honetan lehenengo aurrerakinarekin. HKEEK sailkatu edo doitu egin ditu alderdi politikoek beste erregistro irizpide batzuk baliatuta aurkeztutako kontuak.

2020ko uztailaren 12ko Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ezohiko egoera batean egin dira, 2020ko apirilaren 5erako hauteskundeak deitu zituen hauteskunde-prozesua gauzatu gabe utzi behar izan baitzen, COVID-19tik eratorritako osasun-krisiaren ondorioz. Alderdi politikoetarik lauk aurkeztu dituzten egoeraren balantzeek soil-soilik 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetako eragiketak jasotzen dituzte. Bi alderdi politikok apirilaren 5eko hauteskunde-prozesukoak diren baliabideak eta diruzaintza jasotzen dituzten egoeraren balantzeak aurkeztu dituzte, zeinak IV.2 eta IV.6 eranskinetako kontuetan identifikatu eta bereizi baitira. Alderdi politiko guztiek aurkeztutako hauteskunde-jardueraren emaitzen kontuak soil-soilik hauteskunde-prozesu honetako eragiketenak dira.

Diruz lagungarri ez diren gastuak aparteko kontzeptuan jaso dira eta dagozkion kontuen ondotik zerrendatu.

HKEEK birsailkatu egin ditu mugak dituzten kontu-sailletakoak diren gastuak.

Administratzaileek kontabilitate xehakaturik eta dokumentaturik aurkeztu beharko dute bozketa ondoko hirurogei egunetan (ELHLren 149.1 artikulua); epea 2020ko irailaren 10ean amaitu da. Epaitegi honetan kontuen aurkezpen datak, hau da, alderdi politiko, federazio edo hauteskunde-koalizio bakoitzaren kontabilitatean barne hartutako eragiketei dagozkienak, honako hauek dira:

Alderdi, federazio edo koalizio politikoa	DATA
EAJ-PNV	10/09/2020
EH Bildu	4/09/2020
PSE-EE (PSOE).....	8/09/2020
Elkarrekin Podemos-IU	9/09/2020
PP+Cs (*).....	9/09/2020
VOX.....	10/09/2020

(*) 2020/10/6an berriz formulatutako kontuak aurkeztu ditu, ordaintzeko zituen fakturak ordaindu (ELHLren 142.3 artikuluan agindutako epean) eta alderditik berriz ekarpenak jaso ondoren.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV.1 EUZKO ALDERDI JELTZALEA

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak	5.452,08	Dirulaguntzaren aurrerakina	472.914,51
Errentamenduak.....	12.402,18	Alderdiaren ekarpena	1.030.000,00
Aseguru primak.....	2.069,92		
Publizitatea prentsa-irratian	236.692,98		
Kanpoko publizitatea	234.696,45		
Bestelako propaganda eta publizitatea	481.509,06		
Bestelako zerbitzuak.....	254.714,34		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	225.395,10		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	1.452.932,11	BALIABIDEAK GUZTIRA	1.502.914,51
Diruzaintza.....	50.043,36	Hartzekodunak	60,96
GUZTIRA	1.502.975,47	GUZTIRA	1.502.975,47

"Beste zerbitzu batzuk" atalean birsailkatu dira: "hauteskunde-bidalketengatiko gastuak" atalean erregistraturiko 10.890 euro; "publizitatea prentsan eta irratian" atalean erregistraturiko 52.309,68 euro; eta "kanpoko publizitatea" atalean erregistraturiko 5.777,75 euro.

IV.2 EUSKAL HERRIA BILDU

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak	10.963,79	Dirulaguntzaren aurrerakina	363.037,68
Errentamenduak.....	101.070,21	Alderdiaren ekarpena	650.000,00
Profesional independenteen zerbitzuak	26.704,51	2020ko apirilaren 5eko hauteskunde- prozesutik eratorritako baliabideak ...	267.390,72
Aseguru primak.....	447,53		
Banku zerbitzuak eta antzekoak.....	293,35		
Publizitatea prentsa-irratian	100.955,30		
Kanpoko publizitatea	47.991,05		
Bestelako propaganda eta publizitatea	200.482,08		
Bestelako zerbitzuak.....	325.909,60		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	217.858,44		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	1.032.675,86	BALIABIDEAK GUZTIRA	1.280.428,40
Gastu ez subentzionagarriak	1.524,60		
GASTUAK GUZTIRA	1.034.200,46	BALIABIDEAK GUZTIRA	1.280.428,40
Diruzaintza.....	246.227,94		
GUZTIRA	1.280.428,40	GUZTIRA	1.280.428,40

2020ko maiatzaren 28an, apirilaren 5erako hauteskundeak deitzen zituen hauteskunde-prozesutik eratorritako gastuen ordainketa guztiak behin egin ondoren, prozesu horretarako irekitako hauteskunde-kontuaren saldoa, 267.390,72 euro, 2020ko uztailaren 12ko hauteskundeetarako hauteskunde-kontura aldatu zen. Kopuru hau "apirilaren 5eko



hauteskunde-prozesutik eratorritako baliabideak” atalean barne hartu da. Kontu honen saldoa honako hauek sortu zuten:

- Apirilaren 5eko hauteskunde-prozesurako alderdiak egindako ekarpenek, 200.000 euro egin zutenek.
- Apirilaren 5eko hauteskunde-prozesurako jasotako dirulaguntza-aurrerakinaren 67.390,72 euroren soberakinak, prozesu horretan izandako hauteskunde-gastuen aldean.

Ez dira gastu subentzionagarritzat jo hauteskunde-prozesu honetakoak ez diren 1.524,60 euroren gastuak.

"Beste zerbitzu batzuk" atalean birsailkatu dira: "hauteskunde-bidalketengatiko gastuak" atalean erregistraturiko 32.670,05 euro eta "kanpoko publizitatea" atalean erregistraturiko 396,88 euro.

IV.3 EUSKADIKO ALDERDI SOZIALISTA-EUSKADIKO EZKERRA (PSOE)

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Garraioak	42.083,80	Dirulaguntzaren aurrerakina	264.815,19
Aseguru primak.....	1.930,46	Alderdiaren ekarpena	844.103,88
Publizitatea prentsa-irratian	177.779,11		
Kanpoko publizitatea	155.979,57		
Bestelako propaganda eta publizitatea	129.993,92		
Bestelako zerbitzuak.....	210.456,24		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	390.695,97		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	1.108.919,07	BALIABIDEAK GUZTIRA	1.108.919,07



IV.4 ELKARREKIN PODEMOS-IU

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak	20.556,66	Dirulaguntzaren aurrerakina	-
Errentamenduak.....	17.492,69	Alderdiaren ekarpena	481.000,00
Profesional independenteen zerbitzuak	89.629,13		
Garraioak	38,72		
Aseguru primak.....	560,16		
Banku zerbitzuak eta antzekoak.....	480,00		
Publizitatea prentsa-irratian	72.015,15		
Kanpoko publizitatea	7.151,96		
Bestelako propaganda eta publizitatea	14.565,66		
Bestelako zerbitzuak.....	86.072,31		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	156.316,72		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	464.879,16	BALIABIDEAK GUZTIRA	481.000,00
Gastu ez subentzionagarriak	10.170,71		
GASTUAK GUZTIRA	475.049,87	BALIABIDEAK GUZTIRA	481.000,00
Diruzaintza.....	9.031,03	Hartzekodunak	3.080,90
GUZTIRA	484.080,90	GUZTIRA	484.080,90

Hartzekodunen zenbatekoak PFEZaren atxikipenen kontzeptuan Ogasun Publikoarekin duen saldoa jasotzen du, zeina urriaren 8an ordaindu baita, ELHLren 142.3 artikuluan ezarritako epe barruan.

Ez dira gastu subentzionagarritzat jo honako gastu hauek, kontzeptuak ez baitaude ELHLren 146. artikulua bereizten dituen artean jasoak:

- Joan-etorri eta bidaietarako gastuak, 7.399,81 eurorenak.
- Hauteskunde-prozesu honetakoak ez diren gastuak, 2.770,90 eurorenak.

IV.5 ALDERDI POPULARRA+CIUDADANOS

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Langileria ez iraunkorraren gastuak	31.986,34	Dirulaguntzaren aurrerakina	-
Errentamenduak.....	6.117,89	Alderdiaren ekarpena	978.420,24
Profesional independenteen zerbitzuak	161.875,24		
Aseguru primak.....	4.030,96		
Banku zerbitzuak eta antzekoak.....	27,30		
Publizitatea prentsa-irratian	201.154,73		
Kanpoko publizitatea	58.516,94		
Bestelako propaganda eta publizitatea	3.360,64		
Bestelako zerbitzuak.....	179.837,23		
Hauteskunde-igorpenengatiko gastuak	331.512,97		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	978.420,24	BALIABIDEAK GUZTIRA	978.420,24

Oharra: 2020ko urriaren 6an HKEEri eskuratutako hauteskundeetako kontu birformatuen araberako informazioa.

Birformulatutako kontuetan alderdiaren ekarpenek 394.000 euroren ekarpen bat barne hartzen dute, 2020ko irailaren 14an jasotakoa, koalizioko alderdietako batek 400.000 euroren mailegu bat sinatu ondoren. Mailegu hori finantza-erakunde batek eman zuen 2020ko irailaren 11n, ELHLren arabera zegokion hauteskundeetako dirulaguntzen aurrerakin gisa; honela, bada, koalizioari Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan parte hartzeagatik dagozkiokkeen dirulaguntzen % 100 mailegu horri atxikitzea hitzartu da.

"Beste zerbitzu batzuk" atalean birsailkatu dira: "publizitatea prentsan eta irratian" atalean erregistraturiko 50.759,50 euro; eta "kanpoko publikitatea" atalean erregistraturiko 1.573,39 euro.


IV.6 VOX

2020KO UZTAILAREN 12KO HAUTESKUNDEAK		Euroak	
GASTUAK		BALIABIDEAK	
Errentamenduak.....	44.854,05	Dirulaguntzaren aurrerakina	-
Profesional independenteen zerbitzuak	63.190,21	Alderdiaren ekarpena	329.254,00
Banku zerbitzuak eta antzekoak	116,10	Apiril. 5eko proz. alderdiaren ekarp. .	121.110,80
Kanpoko publikitatea	725,40		
Bestelako propaganda eta publikitatea	22.220,92		
Bestelako zerbitzuak.....	14.790,96		
Hauteskunde-igorpenengatik gastuak	158.554,19		
GASTU SUBENTZIONAGARRIAK GUZTIRA	304.451,83	BALIABIDEAK GUZTIRA	450.364,80
Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	121.096,66	Hartzekodunak	(6.569,99)
Banku erakundeetako zordunak (*).....	8.270,40	Ogasun publ., PFEZagatik hartzekod.	171
Diruzaintza.....	10.146,92		
GUZTIRA	443.965,81	GUZTIRA	443.965,81

(*) Txanpon-txartelen saldoa, zeinaren karga ekainaren 22an hauteskunde-kontutik murriztu baitzen . Finantza erakundeak saldo hau irailaren 24an itzuli du hauteskunde-kontuan.

VOXek aurkeztutako 2020ko uztailaren 12ko hauteskunde-egoera-balantzeak 2020an deitutako bi hauteskunde-prozesuetan egindako eragiketak biltzen ditu. Izan ere, "aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak" idazpuruan 2020ko apirilaren 5erako hauteskundeak deitzen zituen gauzatu gabeko hauteskunde-prozesuko gastuen zenbatekoa jasotzen da. Apirilaren 5eko prozesuko hauteskunde-kontua 2020ko uztailaren 12ko prozesuko hauteskunde-kontu modura ere erabili da; kontu horrek 12,14 euroren saldoa zuen aurkeztutako kontabilitatean.

"Hartzekodunen" zor-saldoa hauteskunde-kontutik okerbidez ordaindutako gastu ez subentzionagarrii dagokie. Alderdiak hartzekodun horiei eskatu die kopuru horiek hauteskunde-kontuan ingresatzeko.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas



ABREVIATURAS

- CAPV Comunidad Autónoma del País Vasco.
- IRPF Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.
- JECA Junta Electoral de la Comunidad Autónoma del País Vasco.
- LEPV Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco.
- PCAFP Plan de Contabilidad Adaptado a las Formaciones Políticas y a la Ley Orgánica 3/2015, de 30 de marzo, aprobado por el pleno del Tribunal de Cuentas el 20 de diciembre de 2018.
- TVCP Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.





INTRODUCCIÓN

De acuerdo con el artículo 149.3 de la Ley 5/1990, de 15 de junio, de Elecciones al Parlamento Vasco, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas debe emitir un dictamen motivado, sobre las contabilidades electorales y sobre la justificación de los ingresos y gastos en ellas incluidos.

El Decreto 2/2020, de 10 de febrero, del Lehendakari, disuelve el Parlamento Vasco y convoca elecciones a celebrar el 5 de abril de 2020. Debido a la crisis sanitaria derivada del COVID-19, el Decreto 7/2020, de 17 de marzo, del Lehendakari deja sin efecto la celebración de elecciones el 5 de abril y determina la expedición de una nueva convocatoria, una vez levantada la declaración de emergencia sanitaria.

El Decreto 11/2020, de 18 de mayo, del Lehendakari, una vez superada la situación epidemiológica que aconsejaba en marzo adoptar medidas extraordinarias y urgentes para dar respuesta a la situación de emergencia de salud pública que en aquel momento se daba, convoca elecciones al Parlamento Vasco a celebrar el 12 de julio de 2020.

